


A T Z O K O
Andoain

8. zbk.

1999ko irailaren 26a.



eta andoaindarrak
ando
ainda
rrak

Lanbide zaharrak

GALTZEKO BIDEAN ASKO

Lan mundua etengabe ari da aldatzen eta horrekin batera lanbide berriak sortzen. Badira telekomunikazio injeniarriak, internet adituak, marketing profesionalak..., eta beste zientoka eta zientoka eginbehar tekniko eta espezialdu. Aldaketaren zurrumbilo horretan gaude erabat eta maiz ez gara konturatzten lanbide ugari guztiz desagertu edo moldatu egin direla iragan gertukotik hona. Ahaztutzeko bidean daude asko eta asko.

Eta hain zuzen ere, ahaz daitezen nahi ez dugulako ekarri ditugu zenbait gogora hilabete honetako zenbakian. Gure zaharrenentzat polita da gogoratzea

lanbide horiek nolakoak ziren eta gazteentzat, dudarik ez, jakingarri bitxia.

Esku-karroa hartu eta arraina, fruta edota ikatz saltzaileak kalez kale ibiltzen zireneko garai haiek ez dauzkagu hain urruti. Errementariak trastoak hartu eta baserriz baserri animaliak perratzen nola ibiltzen ziren ere askok gogoratuko dute oraindik. Orain hamarkada gutxi arteko kontua izan da aguazilak atabalaren laguntzaz bandoa irakurtzen zueneko...

Horien denen berri ekarri dugu oraingo honetan orriotara, bestetan bezala, asko eta asko kontatzeke geratu zaizkigula jakinda ere.

FRUTA SALTZAILEA

Fruta saltzaile nagusia Dionisio Alvarez 'Ederra' izan da Andoainen. Nafarra zen hura sortzez, karabinero baten semea, eta etorkizuna egin asmoz iritsi zen gure herrira. Ahalegin eta neke handi samarrez lortuko zuen noski negozioa aurrera ateratzea; azkar asko irabazi zuen, ordea, herriarren konfidantza.

"Hura kanpotik etorri zen, eta hasi zen herrian fruta saltzen bizkarrean saski bat hartuta. Etorri bezain pronto ikasi zuen esaten euskaraz 'ederra! ederra eta merke!', eta hortik geratu zitzaion izena", gogoratu du Loren Navarrok.

"Ederra' Andoainera etorri zen arte", jarraitu du Bixente Olanok, "ez zen horrelako frutarik izaten hemen. Platanoa, adibidez, hark ekarri zuen lehenengo aldiz". Izan ere, sagarrak, udareak, gerezia udan..., bestela ez



Loren Navarro

"Hura kanpotik etorri zen, eta hasi zen herrian fruta saltzen bizkarrean saski bat hartuta. Etorri bezain pronto ikasi zuen esaten euskaraz 'ederra! ederra eta merke!', eta hortik geratu zitzaion izena".

baitzuten jaten inguru hauetan eta orain hain ohiko diren platanoak, esate baterako, fruta exotikotzat zituzten garai hartan. "Gogoratzen naiz nola behin platanoa jaten ari nintzela", esan du Loren Navarrok, "etorri zitzaion emakume bat amari esanaz zer ari ote nintzen jaten, hura ez zela

batere ona..., eta platano bat besterik ez zen!". Eta ez oraingo exkas horiek bezalakoa, ez. Garai hartakoak askoz ere handiagoak omen ziren, esan dute denek, "orain kanpora bidaltzen omen dituzten horietakoak".

'Ederra'-ren negozioak, gutxika, hobera egin zuen, eta gutxika baita ere, salmentan ibiltzeko bitartekoak hobetzeko modua lortu zuen. "Kaxa utzi ostean hartu zuen esku-karro bat; eta handik urte batzutura erosi zuen karro bat zaldiduna; zaldi ttiki polit asko bat zuena", ekarri du gogora Roke Ansak.

"Eta gogoratzen zerate zenbatetan uzten zuen karroa, hemen, kontzejupean pilotan jolasteko?", bota du Bixente Olanok. Ikaragarri gustatzen omen zitzaion pilota, eta afizio zuen horretan aritzeko aprobetxatzen zituen lanaldiko deskantsuak. Baina deskantsu haiek 'Ederrak' ezezik, herriko mutikoen ere ondo asko aprobetxatzen omen zituzten "hura pilotan zela, zas!, fruta bat ostu eta poltsikora!" sartzen baitzuten, Miguel Amasek ondo gogoan duenez.

Gerra ondoren motorizatu zen 'Ederra' fruta saltzailea. Bixente Olanok kontatu duenez, Teodoro Txopei-



Orain herrian daukagun fruta aukerarik ez zen orduan.



Bixente Olanok

"'Ederra' etorri zen arte fruta asko ez zen. Platanoa hark ekarri zuen lehenengo aldiz"

tia lanik ez zuela itzuli zen gerratik, eta hartu zuen kamioi bat bere kontura lan egiteko. 'Ederra'-rekin egin zuen tratua eta harrez geroztik ibili zen 'Ederra'-ren txofer. Bat gidari eta bestea fruta saltzaile.

Ederrak etxean zuen almazen txiki bat -Kaleberrian, orain denda dagoen leku berean- eta hara ere jendea

ARRAIN SALTZAILEA

Arrain saltzaileak, karro batekin, fruta saltzailearen antzera ibiltzen ziren salmantan. Baina fruta saltzaile baino askoz ere arrain saltzaile gehiago zegoen Andoainean. "Asko ziren; zortzi!", azpimarratu du zehaztasunez Miguel Amasek.

Otero abizeneko emakumezko galiziarra gogoratu dute denek zerrendan lehendabiziko; "oraindik bizi da", gaineratu du Loren Navarrok. "Hura zen eleganteena; arrainik onena hark saltzen zuen eta zaldiko karroa ere harek jarri zuen lehenengo", egin du zehaztapena Miguel Amasek.

Otero Kaletxikin bizi zen nonbait, eta auzo hartatik gora jarraitu dute garai hartako arrain saltzaileen zerrenda gogoratzen: "Otero aurrena, gero Maria Sarasola; gero Karmen



Miren Zarraga

"Gogoratzen dut nola leihotik begiratu eta ikusten genuen bazetorrela tranbia karroarekin, eta 'iritsi da arraina!' buila egiten genuela. Korrika jeisten ginen kalera hura erostera".

Otegi; gero Joxepa -Ritaren ama-, gero Huizi ahizpak; Saldiasekoak; eta gero, Karmen eta Joaquina Donostiatik etortzen zirenak. Azkenik Dolores 'sastra' izengoitik ezagutzen zutena -hura ere kapitalekoa-".

Horiek denek egunero egiten zuten Donostiako porturako buelta. Goizean goiz tranbia hartu, mollar ahalik eta jenerorik onena erosi eta bueltan Andoainera. Tranbiari atzean lotuta jartzen zioten karro batean ekartzen zuten arraina. "Gogoratzen dut nola leihotik begiratu eta ikusten genuen bazetorrela tranbia karroarekin, eta 'iritsi da arraina!' buila egiten genuen

joaten zitzaion fruta eske. "Handik, gainera, inguruko denda guztietara banatzen zuen berak fruta", Maria Esther Arrietaren arabera.

Dionisio aitaren negoziorekin lekuak Julian semeak hartu zuen gero. Oraindik ere jardun horretan aritzen da semea eta aitaren goitizen berarekin ezagutzen du herri osoak.

la auzokoak-eta jakinaren gainean jartzeko. Korrika jeisten ginen kalera hura erostera", esan du Miren Zarragak.

Eta zer arrain klase saltzen zuten orduan? Ba angulak, esate baterako, merke-merke. "Karroan angulekin tontorra egiten zuten orduan", azpimarratu du Roke Ansak. "Jakina!", gaineratu dio Miren Navarrok "orduan ez baitzuten inork nahi izaten".

Erosketa nola egiten zen Miguel Amasek kontatu digu. "Angulak nola daukazazu? galdetzen genuen. 'Bost errealetan erantzuten zuten igoal. Eta prezio hori izaten zen platerako ordaintzen zena, angula bete platerako". Ez ziren, beraz, pisuan saltzen, platerako baizik. "Amak emandako ontzi batekin joaten ginen eta paperetan eta bildu gabe ekartzen genituen han", gaineratu du. "Deskuido batean, ontzira botatzerakoan angularen bat lurrera eroriz gero", jarraitu du, "han geratzen ziren Sabinoren katuentzako-eta. Orain berriz... angula bakoitzak hamaika pezeta inguru balio ditu eta..."

Angulak bezala kantidadean saltzen ziren legatzak, antxoak, bixi-

'Ederra'-z gain, baina, tarteka, beste fruta saltzaile ere izaten zen Andoainean. Loren Navarrok ondo gogoan du nola etortzen ziren kamioiak herrira, frutat beteta. "Jartzen zituzten kajaka bete naranjak salgai; eta naranjak zurituta gainera. Naranja haundi-haundiak azal xuriska hori agerian zutela".



Miguel Amas

"Amak emandako ontzi batekin joaten ginen eta paperetan eta bildu gabe ekartzen genituen angulak han. Deskuido batean, ontzira botatzerakoan angularen bat lurrera eroriz gero han geratzen ziren Sabinoren katuentzako-eta".

guak, oilarrak, akulak, atunak, xapokak, berdelak, katuarraia, pinpinua... Arrain horietako batzuren izenak arraindegietan ere gaur egun ez direla ezagutzen esan digute, eta beste batzuk, berriz, orduetik hona izugarriko estimazioa lortu dutela. "Xapoa? Xapoa, adibidez, garai hartan ez zuen inork nahi izaten...", esan du Bixente Olanok.

Estimazioa zutenak eta ez zutenak, horiek denak karro gainean jarrita ibiltzen ziren saltzaileak. Karroak bazuen ertzetan egurrezko



Mutrikuko arrain saltzaile hauen moduan ibiltzen ziren Andoainera etortzen zirenak ere.



Bixente Olanok

"Xapoa? Xapoa, adibidez, garai hartan ez zuen inork nahi izaten"

tope bat jeneroa erori ez zedin; pixu txar bat ere bai, eta albo batean zintzilik pertza bat urez beteta arraina garbitzeko.

Roke Ansak kontatu duenez, "Bokarta!!!, bokarta!!!" oihuka ibiltzen ziren kalez kale egun horretan horixe ekarri bazuten saltzeko. Bixente Olanok ondoen 'sastrea' gogoratzen du.

Etxeberrietatik hasi eta Kaletxikiraino ibiltzen omen zen hura emakumezkoei kalera jeitsi eta arraina eros zezaten oihuka. "Poxpolina! jeitsi hadi, arrain ona zeukanat eta gaur!", esaten omen zuen maiz.

"Konprenitzekoa da zergaitik izaten zen hemen arrain asko", azaldu du Miguelek. "Orduan arraina hemen saldu behar izaten zen, inguru honetan, kanpora bidaltzeko ez baitzegoen kamioirik. Gerra bukatuta kamioiak agertu zirenean hasi ziren kanpora bidaltzen. Igoal jartzen zuten mila kilo arrain kamioian eta hiru mila kilo gehiago jela. Bartzelonara edo Madrila joaten ziren bide guztian ura zeriela, sekulako usaina utzita bazterretan".

"Behin baino gehiagotan lagundu diot bide hori egiten Joxe Igarategiri", jakinarazi digu Bixente Olanok. "Bidea luzea zen eta maiz loak jotzen zigun kabina barruan geundela. Hortaz, bide bazterrean geratu arraina estaltzeko genuen jela harekin aurpegia busti, espabilatu, eta aurrera! A ze kiratsa..."

50.eko hamarkada ondo sartu arte arraindegirik ez zen izan Andoaingen. Lehenengoa Zumea kalean orain dagoen horixe bera izan zen. Luzuria-ga abizeneko familia batek zabaldu zuen lehenik; negozioa Donostiako bi ahizpek hartu zuten gero eta haien atzetik hartu zuten lekukoa Saldiasekoek.

ERREMENTARIA



Animaliak perratzea zen errementariaren lan nagusia.

Patxi herreroa zen lanbide horretan herriko profesionala; Bekoplazako

zubiaren inguruan zeukan tailerra. Mahaikideek gogoratu dutenez, baina, tailer hura Okinenarena zen. "Hura albaitaria zen eta, jakina, ondoan behar izaten zuen perratzailea", esan du Miguelek. Roke Ansak zehaztu dioenez, "garai hartan perratzaileei titulua exijitzen zieten eta titulu hori izaten zuen beterinarioak. Hura zen responsable, baina lana errementariak egiten zuen".

Patxiz gain, beste izen batzuk ere badituzte gogoan gure solaskideek. "Jaxinto Otegi ere ibili zen herrero; eta haren atzetik etorri zen Joxe Urdanpilleta", jakinarazi du Miguelek.

Bixente Olanoren kontakizunaren arabera, baserriarrak ez ziren herri-jeisten animaliak perratzaile; "garai hartan baserri baserri ibiltzen zen perratzailea". Horixe zuten eginbehar nagusia baina horrez gain, baserriako lan tresnak egin eta konpontzen ere aritzen zen errementaria.

ZABOR BILTZAILEA

Arrain saltzaileak bezala, zabor biltzailea ere karro batekin ibiltzen zen kalez kale. "Aurrena tiraka eta gero astoarekin", esan du Miguel Amasek. Baina garai hartan zabor asko ere ez zen egiten, eta egia esan, zabor biltzailea ez zen izugarri zamatzen. "Dena sutarako izaten zen; pata-pata azalak eta denak erretzen ziren", esan du Loren Navarrok. "Tomate potoak, berriz", gaineratu du Miren Zarragak, "saldu egiten genituen. Potoak gorde eta orain Txindoki taberna dagoen horren ondoan Ezama eta horiek zuten biltegira eramaten genituen; bost xentimo jaso eta etxera!"

Sutarako eta xox batzuk jasotzeko aprobeztatzen ez ziren "zaborrak biltzen ziren baldean eta barrenderoa etortzen zenean egiten zen haren karroan hustu", kontatu du Miguelek.

Mahaikideek gogoratu dute gerra aurretik lanbide horretan ibili zela Juanito Flamarike. Gerra garaian



Garai hartako zabor biltzaile bat Donostian.

Nemesio Fernandez aguazila fusilatu egin zuten eta haren lekua hartuta udaltzain postua hartu zuen gero Juanito Flamarikek. Haren atzetik beste herritar dexente ibili ziren Udalak eskaintzen zuen zerbitzu hartan: Setien, Aldaz....

Gerora, udaletxeak zaldia eta karroa ere erosi zituen; Roke Ansak gogoratzen duenez ospitalean gordetzen zuten.



Miguel Amas

"Zaborrak biltzen ziren baldean eta barrenderoa etortzen zenean egiten zen haren karroan hustu".

AGUAZILA ETA SERENOA

Udaletzeko zaindaria zen aguazila garai hartan eta herrian ordena gordeztea zen lanbide zuena. Besteak beste, festetan antolaketa lanak egin, igandeko dantzaldia zaindu eta alkaterearen bandoak irakurtzea zuen eginbehar nagusia.

Loren Navarroken arabera "orduan asko agintzen zuen" udaltzainak. "Aguazil bakarria nahikoa izaten zen orduan ordena jartzeko! Norbait eskandaluan ari zela jakinez gero 'anda dios!' joaten zen aguazila eta txintxotzen zen derrepentean!", jarraitu du Miguelek.

Gerra aurretik Arratibel abizeneko aguazila gogoratzen dute mahai-



Juanito aguazila Santakruzetako danborradan.

ren bueltan biltzen ditugunen arteko zaharrenek. Denek esan dute gizon jantzia zela hura eta bandoak ere berak prestatzen zituela. "Gogoratzen naiz nola ematen zituen meza ostean baserritarrentzako abisuak", esan du Roke Ansa; "jartzen zen koxka gainean eta irakurtzen zuen bandoa euskaraz: 'aditzera ematen da alkate jaunak erabakitakoa...!'"

Gerraz gerotik denbora luzez Juanito Flamarike barrendero izan-



Roke Ansa

"Gogoratzen naiz nola Arratibelek ematen zituen meza ostean baserritarrentzako abisuak; jartzen zen koxka gainean eta irakurtzen zuen bandoa euskaraz: 'aditzera ematen da alkate jaunak erabakitakoa...!'"

dakoa izan zen herriko aguazil. Miguel Amasek gogoratu du "nola garai hartan razionamenduan eta bera aritzen zen Alondigako Klau-diori laguntzen".

Razionamenduarena aipatuta Flamariketik behinola bandoa irakurtzerakoan esandako astakeria ekarri du gogora Maria Esther Arrietak. Bixente Olanok zehaztu dioenez, "garai hartan zegoen alkate Pablo Etxebeste eta hark zuen amistade handia gobernadorearekin. Haren bitartez lortu zuen kamioikada bat patata ekartzea Andoaina. Orduan, aguazila atera zen bandoa esatera. Horrela esan omen zuen: 'Hay un cargamento de patata en la Alhóndiga. El que quiera tomar por saco que pase por allí como de costumbre'".

Bandoa kalez kale irakurtzen zuen aguazilak. Atabal soinuaz iragartzen zuen bertan zela, eta auzoko guztiak balkoietara irten ondoren, alkatearen azken aginduen berri ematen zuen.

Aguazila bezala, kaleak zaintzea zuen lanbide serenoak; gaueko zaintza lana egitea, ordea. Miguel Amasek gogoratu duenez, lehenengo Cosme etorri zen herrira sereno lana egitera. Handik denbora gutxira Cosme aguazil jarri zuten eta gaueko zaintzaren

ardura Figueras abizeneko gizonetzko batek hartu zuen.

Kaleak, erreka bazterrek eta inguruak gauez zaintzea zuten lanbide. Loren Navarrok gogoan du nola lurrari makilaz jotzen ibiltzen ziren pasean eta ohetik konturatzen ziren serenoa bazebilela inguruan. Gaueko mugimenduei oso adi jarraitzen zien serenoak. "Hara; nik badaukat seme bat urtarrilean jaioa eta goizeko ordubatean abiatu ginen klinikara joateko; serenoak hantxe genituen



Gerra aurretik aguazila ardo goxoa eta gailetak banatzen.



Loren Navarro

"Nik badaukat seme bat urtarrilean jaioa eta goizeko ordubatean abiatu ginen klinikara joateko; serenoak hantxe genituen galdezka zer gertatzen zen"

galdezka zer gertatzen zen. Hori daukat ondo gogoan", esan du Lorenek.

Baina Andoaingo serenoek, behintzat, etxeetako giltzarik-eta ez zuten izaten hiri handietan bezala, besteak beste, gure herrian garai hartan etxeak zabalik izaten zirelako. "Aterik ez zen ixten eta!", zehaztu du Miguel Amasek.

TRANBIAKO KARRILEN GARBITZAILEA

Tranbia bere bidetik irtengo ez bazen inportantea zen oso karrilak txukun eta garbi edukitzea, eta horretarako konpainiak propio jartzen zuen langile bat. Patxi Erbiti,

Imanol Egibar gure solaskidearen osaba ibiltzen zen eginbehar horretan, egunerok.

"Goizeko bostetan pasatzen zen gure etxe aurretik", esan du Loren

Navarrok. "Andoaingo garbitzaileari tokatzen zitzaion Oriatik Ubulutserako tartea, alegia, Andoaingo mugen barruan zegoen karril zatia garbitu behar zuen harek", zehaztu du Miguel



Miren Zarraga

"Etxeberrietatik hura pasa orduko joaten zen ama anaia esnatzera Labordera lanera joateko; hura zen despertadorea", kontatu du Miren Zarragak.

Amasek. "Pentsa ezazu:", gaineratu du "hamabost eta hamar, hogeitabost kilometro..., horiek denak egiteko, jakina, atera behar izaten zuen goizeko bostetan! Karril batetik joan eta bestetik itzultzen zen eta bina buelta egiten zituen egunero karril garbiketan.

"Gogoratzen zarete nola ibiltzen zen makil luze batekin karrilak garbitzen?", galdetu du Maria Estherrek.

"Ziri luze moduko kako bat zuen karriletan sartzen zuena eta soinu berezia egiten zuen. Ohetik jabetzen ginen; hara badoa!", esan du Lorenek. "Etxeberrietatik hura pasa orduko joaten zen ama anaia esnatzera Labordera lanera joateko; hura zen despertadorea", kontatu du Miren Zarragak.

"Alkandora eta bonbatxo urdinak jarrita ibiltzen zen lanean; askotan jartzen ginen hari begira etxe parean", ekarri du gogora Maria Esther Arrietak.

Karril zulotik grasa, zikina eta harriak ateratzea zen haren eginbeharra. Eginbehar inportantea oso, lan hori ondo bete ezean tranbia deskarritatzeko arrisku handia baitzegoen.



Andoingo zentralean tranbia berriak inauguratu ziren eguna.



Maria Esther Arrieta

"Alkandora eta bonbatxo urdinak jarrita ibiltzen zen lanean; askotan jartzen ginen hari begira etxe parean"

TRANBERO, INTERBENTORE ETA KOBRADOREAK

Ortzaika, Marin, Santamaria, Sueskun, Amantegi, Ozaeta..., eta beste asko ibili ziren tranbian lanean. Eginbehar diferenteak zituzten, baina, batzuek eta besteek. Interbentoreak bidaiariek biletea ba ote zuten konprobatzen ibiltzen ziren tranbian, eta kobradoreak, berriz, bidaiak balio zuen dirua jasotzen. "Kobradoreak ibiltzen ziren poltsa bat zintzilik zutela, eta departamendu bakoitzean izaten zituzten Villabonarako, Irurarako, Tolosarako... bileteak. Noa hoa,

Tolosara? Ba aiba, tolosako biletea!", jakinarazi digu Miguel Amasek.


Horiek ibiltzen ziren tranbia bateatik bestera saltoka: Andoaindik goialde Oriaraino joan eta han bueltarako tranbia hartu. "Egin ezazue kontu zein garesti ateratzen zen tranbia!", esan du Bixente Olanok. "Interbentorea, gero kobradorea, tranberoa..."

Tranberoa tranbiako gidaria zen. Gidaria nolabait esatearren, tranbia ez baitzen gidatu behar izaten. "Manibela bati eman eta korrientea

hartzea zen haren lana, ez baitzen konduzitu behar izaten!", jakinarazi du Bixentek. "Bai, manibelari eman eta gero frenoari ere bai!", zehaztu du Rokek segidan.

Eta frenoari eustea ez zen nolana hiko lana, ez horixe. "Bastero inguruan, Juanito Barberoneko parean geratu behar izaten zuen tranbiak, baina aldapa behera zenez, goialde joaten zen askoz ere aurrerago. Mekauen! Donostiara joan zain zeudenek xesto guztiak hartu eta makina bat lasterketa egingo zuten tranbiaren atzetik!", kontatu du Miguel Amasek.

Asko baitziren egunero kapitalarako buelta egiten zutenak. Baserri-



Tranbia eta bertako langile bat Zumea kalean.



Miguel Amas

"Bastero inguruan, Juanito Barberoneko parean geratu behar izaten zuen tranbiak, baina aldapa behera zenez, goialde joaten zen askoz ere aurrerago. Mekauen! Donostiara joan zain zeudenek xesto guztiak hartu eta makina bat lasterketa egingo zuten tranbiaren atzetik!"

tar bat baino gehiago bazen barazkiak saltzera joaten zena merkatura, eta rekadistak ere ibiltzen ziren gora eta behera herritarrek Donostian egiteko zituzten mandatuak betetzeko. Haiek denek izaten zituzten trasto,

xesto eta gainerakoak tranbiara igotzeko interbentoreak aritzen ziren laguntzen.

Behinola baserritar batek txekorra ere eraman omen zuen tranbiako plataforma igota. Miguel Amasek kon-

tatu digunez, "orduak kobradorea Adunako Soron egokitu zen eta hasi omen zitzaion: 'baina Anttoni!, harrapatzen banaute...'; 'Ixilikan egon hadi; tori propina...'", bestek. Eta hala! Donostiaraino.

IKAZKINAK

Ikazkinena tradizio handiko lanbidea izan da aintzina Andoain eta inguruetan. Bixente Olanok ondo zehaztu duenez, horren erakusle da herrian gaur egun San Juan egunez dantzatzen den Axeri Dantza. "Ikaz-



Roke Ansa

"Andoainen makina bat txondor bazen gerra ostean, baina goizuetarrak etortzen ziren haiek egitera. Iturreder ingurura. Guk paraje hartan ganadua bagenuen eta gogoratzen naiz nola aritzen ziren lan horretan".

kinen dantza da hori eta oraingo jantziek ere langile haiek izaten zituztenak gogoratzen dituzte", esan du.

Nolanahi ere, gure mahaiaren bueltan biltzen direnek ikazkinik ez dute ezagutu herrian. "Andoainen makina bat txondor bazen gerra ostean, baina goizuetarrak etortzen ziren haiek egitera, Iturreder ingurura. Guk paraje hartan ganadua bagenuen eta

gogoratzen naiz nola aritzen ziren lan horretan", kontatu digu Rokek.

Ikazkinik ez baina ikatz saltzaileak bai ugari. "Maidiko apaizaren aita zen ikatz saltzailea. Mandoa eta karroa hartuta ibiltzen zen kalez kale ikatza saltzen", esan du Bixente Olanok. "Exekielek ere saltzen zuen ikatza; Batista Arribillaga ere ibiltzen zen...", gaineratu du Miguel Amasek. "Popularrrenetarikoa Gregorio ikatz saltzailea zen", bota du azkenik Esther Arrietak.



Bixente Olano

"Maidiko apaizaren aita zen ikatz saltzailea. Mandoa eta karroa hartuta ibiltzen zen kalez kale ikatza saltzen".



Ikazkinak lanean Andoaingo mendi inguruetan.

TELEFONISTA

Gerra aurrean telefono publiko bakarra zegoen herrian. Inaki Arregiren bi izebak aritu ziren operadora lanetan, Pilar Garineko horretan zuten etxean bertan. "Zentralita zuten han eta han ibiltzen ziren biak", esan du Loren Navarrok. Lorenek berak gaineratu duenez, gerra garaian bi emakumezko horiei ilea moztu egin zieten "abertzaleak zirelako" eta txapela jantzita jarraitu zuten lanean.

Geroztik Kinkileriakoek jarri zuten telefono publikoa; eta haiek zentrali-

tako lana utzi ondoren Maizanekoek hartu zuten eginbehar hori. Haiengana jo behar izaten zuen telefono dei bat egin edo telegrama bat bidali nahi zuen herritarrek. "Norekin hitz egin nahi zenuen esan eta harek jartzen zizun deia", gogoratu dute.

Gerra ostean apurka telefonoak ugaritu egin ziren eta jarri ziren aparatoak zenbait etxetan. Jauanito Barberonean, esate baterako, oraindik funtzionatzen du garai hartan jarri zuten telefonoak.




Loren Navarro

"Inaki Arregiren bi izebak aritu ziren operadora lanetan, Pilar Garineko horretan zuten etxean bertan. Zentralita zuten han eta han ibiltzen ziren biak".

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Makina bat gai ekarri ditugu orri hauetara, baina oraindik asko ditugu kontatzeko, eta bide batez, atzoko Andoain nolakoa zen gogora ekartzeko. Hurrengo alean aintzina etxeko lanak nola egiten ziren azalduko digute gure mahai bereziaren bueltan hilero biltzen diren berritsu hauek.

Etxeak nolakoak ziren eta nola garbitzen ziren; zein janari izaten zen eta nola prestatzen ziren; emakumeak labaderoan nola aritzen ziren garbiketan eta kontu kontaketan; nola plantxatzen ziren arropak lisatu-lisatuak gera zitezen... Horiei guztiei eta beste bitxitasun askori buruzkoak aurkituko dituzu urriko azken igandeko zenbakian.



Zuk ere bildu nahi al duzu gurekin?

Andoaindarra bazara, aspaldiko kontuei buruz jardutea gustoko baduzu eta hiztuna bazara estimatuko dugu zure konpainia. Hilean behin biltzen gara kontu-kontari aritzeko. Proposamenak tentatzen bazaitu, deitu 300732 telefonora eta jarri gurekin harremanetan, ados?



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udal artxiboa. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.